q014-015_oarsoaldea_Maquetación 1 2021/06/29 12:49 Página 2






# TRINTXERPE

zek. Hortaz, ia dena zen berri haientzat. «Dena oso desberdina da haientzat. Zentzu horretan, oso gogorra izaten ari da egokitzapen lana guretzat, eta arraunlarientzat».

Ilusioz gainezka daudela aitortu du zuzendaritza batzordeko ordezkariak, ordea. Baina ilusio hori, eguneroko lan gogorrarekin uztartu behar dutela: «Hasi besterik ez gara egin KAE2 Ligan, eta jada laztasun hori oso nabaria da, batez ere hasiberrien kasuan». Beraz, Trintxerpe-Illunben ez dituzte errealitatetik kanpora dauden helburuak jarri, arraunlari berri horien formazioa dute xede nagusi, etorkizun hurbilean emaitzei begira jartzeko: «Jakin badakigu mutil berri horietako askok arraunean jarraitzen badute, goi mailako arraunlariak izan daitezkeela. Baina aurreneko urtea beti oso gogorra izaten da zentzu guztietan. Bagenekien gainera. Zerbait nahi duenak borrokatu egin behar du».

**ETXEKO JENDEA**

Arraun elkarte xumeen formula berbera baliatzen ari dira Trintxerpe-Illunben: etxeko arraunlariekin lan egin behar dute derrigorrez. Harrobia zaindu eta landu behar dute. Trainerua osatzeko kanpotik utzitako kirolariak ekarri dituzte, baina *Azkuene* traineruaren bizkarrezurra klubean hezitako arraunlariak dira. «Harrobiko taldea gara. Formatu ditugun arraunlari asko izan ditugu, eta maiz inguruko klubetara joan dira. Aurten jendea izatea lortu dugu, eta aurrera egin dugu».

Gonzalezek nabarmendu du, kirol zailtasunez aparte, COVID-19aren gaiak ez diela batere lagundu, are gogorragoa egin duela itzulera, hainbat neurri zorrotz kontuan hartu behar izan dituztelako entrenamenduetan batez ere. Hala ere, traineru urdina bueltan da. Aurten ikasteko urtea dute, ondoren Kantauri itsasoan hegan hasteko.

## KAE2 LIGA

**Jon Ander Alonso**
20 urte. Donostia.

**Javier Aranburu**
33 urte. Errenteria-Orereta.

**Jon Arrieta**
28 urte. Donostia.

**Beñat Bamio**
23 urte. Pasaia.

**Olaia Barriuso**
18 urte. Pasaia.

**Luis Miguel Berdegue**
41 urte. Donostia.

**Unai Dominguez**
19 urte. Donostia.

**Kerman Gallego**
20 urte. Errenteria-Orereta.

**German Garcia**
20 urte. Donostia.

**Erik Gonzalez**
18 urte. Hernani.

**David Iglesias**
46 urte. Pasaia.

**Arkaitz Indo**
36Donostia

**Xabier Medina**
17 urte. Hernani.

**Alejandro Ortiz de Zarate**
34 urte. Pasaia.

**Beñat Ouviña**
19 urte. Pasaia.

**Oihan Pikabea**
25 urte. Donostia.

**Oier Preciado**
18 urte. Pasaia.

**Erik Puy**
30 urte. Donostia.

**Julen Rico**
21 urte. Donostia.

**Aimar Santiago**
17 urte. Pasaia.

**Aitzol Tolosa**
21 urte. Pasaia.

**Ibon Uriarte**
46 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea: **Antonio Da Silva**

Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe
943.39.14.14

